TRATU ONA
DENONTZAT ONA

TRATU ONEN ALDEKO EKIMEN BATERAKO PROPOSAMENA

TRATU ONA
denontzat ona

SARRERA

Sarritan entzuten da geure gizartean bortxakeria eta **tratu txarren aurkako aldarria**. Geuk ere, **GIZON EKIMENA** taldekook, askotan atera gara salatzera indarkeria matxista, batez ere emakumezkoen aurkakoa. Hedabideek, erakundeek, elkarteek, norbanakoek,... maiz altxatzen dugu ahotsa tratu txarren kontra.

Tratu txarrak nonahi agertzen dira gizartean eta pertsona arteko harremanetan: bikotean (hetero nahiz homosexualetan), sendian, lantokian, lagunartean, erakundeetan, elkarteetan, ikastetxean, kalean, ezezagunen artean, espetxean...

Tratu txarrak bortizkeriarekin lotu ohi dira, baina **badira bestelako tratu txarrak bortizkeria fisikorik gabeak**. Hauek askoz ere gehiago eta orokorragoak izaten dira. Eta bortizkeria fisikoa baino “bigunagoak” edo “txikiagoak” badirudite ere, oso larriak izaten dira, jendearen bizimodua baldintza dezakete, eta gizarte giroa nabarmenki gaiztotu.

Tratu txar horietarik **gehienak matxismoari lotuta daude, baina ez denak**. Gizonezkoak izaten dira tratu txar emaileak gehienetan, baina emakumezkoek ere egiten dituzte maiz. Emakumezkoak izaten dira biktima askotan, baina gizonezkoek ere pairatzen dituzte (emakumezkoen edo, gehienetan, beste gizonezko batzuen eskutik). Emakumezkoen artean ere gertatzen dira.

Tratu txarraren ezaugarri batzuk dira: **kontrola, menderakuntza, gutxiespena, gaitzespena, gizagabetzea**.

Tratu txar asko eta dira halakotzat harzen, edo normaltzat hartzen dira, edo ontzat jotzen dira. Baina **tratu txar oro kaltegarria** da, nozitzen duenarentzat eta, sinesgaitza badirudi ere, emailearentzat ere.

Hau guzti hau egia biribila izanda, erabaki dugu...

Santurtzin TRATU ONAK sustatzea

Hau da, tratu txarrak salatzeaz harago, jendearen arteko tratu onak sustatu nahi ditugu. **Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko tratu onak nahi ditugu; gizonezkoen artean; emakumezkoen artean; eta areago, nork bere burua ondo tratazea** ere bultzatu nahi dugu.

Tratu onez ari garelarik, zertaz ari gara?

Bada, esan nahi dugu **gorestea eta sustatzea honako gizarte baloreak**:

- laguntasuna
- berdintasuna
- errespetua
- autoestimua
- lankidetza
- ausardia
- komunikazioa

Zergatik tratu onak sustatu?

Arrazoi anitz eta funtsezkoak ditugu tratu onak bultzatzeko, besteak beste:

Tratu onak bultzatzeak tratu txarren aurkako salaketaren **mezua positibizatu** egiten du.

Kualitatiboki sakonagoa da.

Mezua **motibagarriagoa** da, eta **eraginkorragoa** ere bai, tratu txarrak salatze hutsa baino.

Tratu txarrak pertsona batzuen auzia da, baina tratu onak **denok barne biltzen gaitu**.

Ondo tratatzen badugu elkar **onura handiak hartuko ditugu denok**, ematen dituenak zein hartzen dituenak ere.

Jendeok behar eta merezi dugulako ondo tratatuak izatea, eta ez soilik txarto tratatuak ez izatea.

Aurrekoaren ondorioz, jendeok elkar ondo tratatzeak **gizarte osoari ekarriko dio onura**.

Zelan irudikatzen dugu ekimen hau?

Gai honen konplexutasuna eta munta hain handia denez, emaitzak lortuko baditugu, kanpaina zehatz eta mugatua baino gehiago, **dinamika bat sortzea** da gure xedea, hau da, iraunkorra eta denboran **hainbat ekintza nahiz kanpainaz garatuko den ekimena**.

Hala ere, uste dugu oso garrantzitsua dela dinamikari hasiera egokia eta zabala ematea, gerora dinamika egoki gorpuzteko bide emango duena. **Hasiera horretarako Santurtziko Karmengo jaiak** aukeratu ditugu,

- jendarteko **harremanak ugaritzen** diren sasoia direlako jaiak; eta,
- era berean, jendarteko tratu txarrak edo **tratu onik eza maiz** gertatzen delako.

Beraz, **2010eko Karmenetarako, jaiei lotutako eragile nagusien inplikazioa lortu nahi izandugu**: **udala** (alkatetza, kultura eta gizarte ekintza sailak, batez ere), **kuadrilak**, **txosnak** eta **tabernariak**. Dagoeneko bilerak egin ditugu hauekin guztiekin, eta oniritzi zabala eskuratu ere.

Lehenengo urrats honen **segida Mamariga eta Mahastietako jaietan** aurkezpen kanpaina hau zabaltzea izango da, eta horretarako, **auzo horietako eragileak ere inplikatzen** saiatzea.

Udazken aldera, **dinamika gorpuzteari ekingo genioke**. Horretarako, Santurtziko gizarte eragileak (hots, herri erakundeak, gizarte-, kirol- nahiz kultur-elkarteak, hezkuntza mundukoak,...) eta herritar norbanakoak gonbidatuko ditugu biltzera, **gaia aztertzeko, tratu onen aldeko ekimenen aldeko ekimena hau orokortzea merezi duenentz erabaki** eta, baiezkoan, denon artean dinamikaren diseinua zehatz dezagun (zer egin, zelan, ebaluaziobideak, eta abarrekoak).

Hasiera kanpaina hau zelakoa izango da?

Kanpainaren ardatz nagusia grafikoa izango da. Irudi bat eta lelo bat (***"TRATU ONA DENONTZAT ONA"***) izango dira haren erdigunea. Mezua zabalduko dugu lau euskarri fisikoetan:

- Taberna eta txosnetan eskegitzeko kartoizko **zintzilikarioa**.
- Banatzeko **pegatinak**.
- Kanpainaren leloa eta irudiaz gain, tratu onarekin lotura handia duen giza-balio bana (laguntasuna, berdintasuna, autoestimua, komunikazioa, lankidetza, ausardia, errespetua) azalduko duten **kartelak**.

Gizarte osoa ekimenaren helmuga eta onuragarria

Tratu onen aldeko ekimen hau, orokorrean, Santurtziko **herri-talde guztiei zuzendutakoa** da, edozein dela ere bere adina, sexua, jatorria,... Izan ere, ekimena gorpuzten bada tade hauei guztiei begirako jarduera eta kanpaina zehatzak antolatzea da gure asmoa.

Ekimenaren lehenengo fase honetan (estraineko aurkezpen fasean, hain zuzen), jaietan gehien parte hartzen duten santurtziarrei zuzenduko gara, batez ere, **nerabeetatik hirugarren adinekoetara**.

Balizko **onuragarriak, bestetik, pertsona guztiak eta, beraz, gizarte osoa** osoa delakoan gaude. Izan ere, giza harremanez eta pertsonen artean ondo tratatu beharraz hausnartzea eragiteak on egingo digu den-denoi.